

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko maiatzaren 31n hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez onartu da Laudion erroldatutako biztanleek 2024ko udan, 2024ko ekainean, uztailean, abuztuan edota irailean egindako euskara ikastaro trinkoak diruz laguntzeko deialdia

BDNS (Identif.): 765177.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/765177>).

Lehenengoa. Onuradunak

Laudion erroldatuta dauden pertsona fisiko guztiak izan daitezke, betiere, deialdian azaltzen diren eskakizun guzti-guztiak betetzen baldin badituzte.

Bigarrena. Helburua

Laudio Udalak hizkuntza normalizazioa azpiarloaren bitartez euskara ikasteko norgehiagokako araubidean ematen dituen dirulaguntzen esleipena arautzea da. Beka hauek euskara ikasteko egon litezkeen oztoko ekonomikoak saihesteko ematen dira.

Hirugarrena. Ordenantza arautzailea

Deialdi hori Laudio Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzak arautuko du. 2021eko martxoaren 10ean argitaratu zen ALHAOn (28. zk.).

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiaren diru-kopurua 6.500,00 euro da.

Edozein modutan ere, urte natural berean eskatzaile batek jasotako euskara beken batuketak ezingo du 1.250,00 euroko muga gainditu.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea deialdi honen laburpena ALHAO-n argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2024ko urriaren 16an amaitu.

Laudio, 2024ko maiatzaren 31

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ